

SMART SOLUZIO IDEIA DEIALDIA, DONOSTIAKO BERTAKO ENPRESETARA ZUZENDURIK

SMART SOLUZIO IDEIA DEIALDIAREN OINARRIAK, DONOSTIAKO BERTAKO ENPRESETARA ZUZENDURIK

1. Lehiaketaren xedea

Oinarri hauen helburua lehiaketa bat arautzea da produktu edo zerbitzuen ideiak hautatzeko eta, hala, baldintza egokiak ezartzea ideia horiek Donostiako ingurune errealetan probatzeko. Lehiaketa honen bidez, produktu eta zerbitzu adimendun eta berritzaileen garapena bultzatu nahi da Donostian, batetik, herritarrei onurak ekartzeko, eta, bestetik, bertako enpresa sareari berrikuntza teknologikoan eta posizionamenduan laguntzeko «normaltasun berri» honetan.

2. Deialdiaren esparrua

Deialdi hau Donostiako *smart* estrategiaren edo estrategia adimendunaren barruan kokatzen da, Donostiako Sustapenak koordinaturik, eta haren helburua da hirian berrikuntza teknologikoa sustatzea, tokiko enpresei lagunduz eta produktu eta zerbitzu adimendunak garatzeko eta ezartzeko negozio aukera berriak sortuz. Horrekin guztiarekin, Donostia «normaltasun berrira» egokitzeko irtenbideak planteatu nahi dira, COVID-19ak sortutako pandemia egoeraren ostetik.

Deialdiaren xedea da bertako enpresek garatutako soluzio adimendunak probatzea. Horretarako, hiria *living lab* edo laborategi bizi gisa erabiliko da, Donostia erreferente adimendun gisa kokatzen laguntzeko. Ideia deialdi honek egungo egoerara egokitzea du helburu, eta barnean hartuko ditu hainbat baldintzatzaile eta berezitasun, berrikuntza teknologiko eta adimendunaren bidez Donostia egungo «normaltasun berrian» garatzen laguntzeko. Era berean, jasangarritasunaren arloan aurrera egiteko premisaren eta konpromisoaren barruan ulertu behar da deialdi hau, Donostia erreferente adimendun bihurtuz eta, hala, COVID-19ak eragindako osasun eta ekonomia krisiaren esparruan sortutako salbuespen egoeraren ondorioei erantzunez.

Deialdi honen bidez, Donostia Sustapenak laguntza eskaini nahi die tokiko enpresei enpresa adimendun gisa posizionatu daitezen. Hori horrela, teknologian, eraginkortasunean eta jasangarritasunean oinarritutako produktu edo zerbitzu adimendunak proposa ditzaten sustatuko du, soluziook Donostian garatu eta inplementatu ditzaten. Parte hartzen duten enpresek erakusleho gisa erabili ahal izango dituzte hirian inplementatutako ekimenak. Horretarako, Donostia Sustapenak laguntza tekniko emango du, eta, horretaz gainera, proposatutako soluzioa zabalduko eta ikusaraziko du.

Jasangarritasuna oso garrantzitsua da COVID-19ak sortutako pandemiaren ondoren sorturiko «normaltasun berrian», bai ingurumenari dagokionez, bai esparru sozioekonomikoan. Hori hala izanik, erronka handi bilakatu da hirietarako. Donostiak badu erronka horren berri, eta, horregatik, aurrerapen horretan lagundu nahi du tokiko hainbat enpresak garatutako teknologia berritzaile eta jasangarrien bidez, lagungarri izan daitezen inpaktu negatiboak

murrizteko eta baliabide berrien eraginkortasuna optimizatzeko, guztia ere herritarren ongizatea eta bizi kalitatea ahalik eta handiena izan dadin.

3. Ildo tematikoak

Proposamenak aurkezteko, ildo tematiko jakinei jarraitu beharko zaie. Ildo horietako bakoitzak normaltasun berrian sorturiko arazoak konpontzeko erronka zehatzei helduko die soluzio adimendunen bidez. Eskabide orrian (1. eranskina) zehaztu beharko da zer ildo tematikotara aurkezten den.

Ildo tematiko bakoitzeko, gehienez bi ideia aukeratuko dira. Ildo tematikoren batean aurkeztutako ideiek ez badute jasotzen hautatzeko adina puntu (ikus oinarri hauetako 6. artikulua), Donostia Sustapenak eskubidea izango du oinarrietan ezarritako ildo tematikoetako beste ideia bat hautatzeko eta dagokion saria hari emateko.

Proposamenak honako kategoria hauetako batera aurkeztu ahalko dira:

1. ildo tematikoa. IKT soluzioak

Ildo tematiko honen barruan, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoren normaltasun berriarekin sorturiko premiei erantzuteko proposamenak aurkeztu ahal izango dira, distantzia soziala eta edukiera teknologian oinarritutako soluzioen bidez kontrolatzeko.

IKTen esparruko soluzio horiek izan litezke, konparazio batera, distantziamenduaren kudeaketa dinamikoa erraztera bideratutako produktuak edo zerbitzuak. Hiriko azpiegiturak, espazio publiko edo pribatuak, garraio publiko edo pribatua edo bestelakoak normaltasun berrira egokitzeko eta hobetzeko balio beharko dute, IKTak erabiliz kutsatzeko arriskua murrizteko.

Era berean, ildo tematiko honen barruan, edukieren kontrola errazteko ekimenak aurkeztu ahal izango dira, erreserbak kudeatzera, edukierak planifikatzera, ilarak kudeatzera eta abarretara bideratutako soluzioen bidez. Soluziook gune itxietarako sarbidea hobetzera bideratuta egon beharko dute, hala nola merkataritza eta ostalaritza establezimenduetarako, museoetarako eta abarretarako, bai eta espazio publiko jendetsuetarako ere.

Ildo tematiko honetan, gehienez bi ideia hautatuko dira.

2. ildo tematikoa. Jasangarritasun energetikoa

Ildo tematiko honen barruan, jasangarritasun energetikoa hobetzea helburu duten proposamenak aurkeztu ahal izango dira, eta, horretarako, hiriaren trantsizio energetiko eta jasangarrian aurrera egitea ahalbidetuko duten neurri berritzaileak planteatuko dira, gaur egungo normaltasun berrian garatzen jarraitu ahal izateko modukoak.

Ekimen horien bidez, hainbat erantzun emango dira:

- 1) Eraginkortasun energetikoari buruzko neurriak proposatzen dituzten ekimenak, hirian baliabideen aurrezpena eta efizientzia sustatuz (energia, ura, eta abar), berotegi efektuko gasen isurpena eta baliabideen erabilera murriztuz eta herritarren bizi kalitatea hobetuz.
- 2) Herritarrei eta/edo zenbait sektore ekonomikori zuzendutako jasangarritasun energetikoari buruzko gaikuntza eta sentsibilizazioa sustatzen duten ekimenak, horretarako metodologia berritzaileak erabiltzen dituzten ekimenak planteatuz. Ekimen horiek tresna teknologikoak konbinatu ahal izango dituzte, hala nola espazio birtualak, aplikazioak, gamifikazioa, datu irekiak eta abar. Horren helburua izango da efizientzia energetikoa eta jasangarritasuna herritarrengana hurbiltzeko formula berriak abian jartzea.

Ildo tematiko honetan, gehienez bi ideia hautatuko dira.

3. ildo tematikoa. SmartKalea proiektuaren esparruan inplementatzeko proposamen irekiak

Kategoria honetan, normaltasun berrira igarotzeko ekimen adimendunak aurkeztu ahal izango dira, betiere SmartKalea proiektuaren barruan inplementatzeko (<http://www.fomentosansebastian.eus/smartkalea/eu/>). Donostia Sustapenak bultzaturiko proiektu pilotu horrek ezarpen adimendunak inplementatzen ditu, eta Donostia hiri *smart* edo adimendun gisa posizionatzen laguntzea du xede. Proiektuak lankidetzan publiko-pribatu aktibo eta integraleko eredu bat garatu du, hiriko eremu geografiko batean elkarrekin bizi diren eragileak *smart* ikuspegitik edo ikuspegi adimendunetik aintzat hartzen dituen: herritarrak, eremu geografikoko negozioak, enpresa teknologikoak eta udalaren sailak berak, hori guztia Donostia Sustapenak koordinatuta.

Ildo honetan aurkeztutako ekimenek elementu berritzailearen bat izan beharko dute SmartKalea proiekturako.

Ildo tematiko honetan, gehienez bi ideia hautatuko dira.

4. Parte hartzeko baldintzak

Donostian egoitza soziala duten pertsona fisiko edo juridikoen, publiko zein pribatu, parte hartu ahal izango dute lehiaketan, bai eta halako nortasunik ez duten taldeek ere, baldin eta antolamendu juridikoaren arabera balio osoz eraturik badaude. Bazterturik geratzen dira ondare sozietateak; hots, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Pertsona fisiko edo juridikoen ezingo dute saria jaso:

- Ez baldin badituzte egunean zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean den legeriak ezartzen duen moduan.
- Zehatuta baldin badaude, epai irmo bidez, dirulaguntzak edota laguntzak eskuratu ahal izateko, edo nolabaiteko lege debekuren bat badute horretarako, sexu bereizkeriagatiko

- debekuak barnean harturik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenak xedatzen duen moduan.
- Zorrak baldin badituzte Donostiako Udalarekin edo/eta Donostia Sustapenarekin.
 - Itzultzeke baldin badituzte, erabat edo partzialki, aurrez eskuratutako laguntzak, harik eta egiaztatu arte bueltatu dutela itzuli beharreko zenbatekoa.

Lehiaketan parte hartzeko, gainera, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Irabazitarako jarduera ekonomiko bat egiten duen pertsona fisikoa edo pertsona juridiko pribatua izatea. Bi kasuetan, Donostian izan beharko du lantokia.
- Osagai berritzailea duten eta hiriaren etorkizuneko garapenean eragingo duten ideiak aurkeztea, hiria normaltasun berrira egokitzen laguntzeko, hiriko benetako egoeretan proba daitezkeen produktuak edo zerbitzuak inplementatuz.
- Donostiako udal mugartean gauzatzea proposatutako ekimena.
- Proiektuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitezkeen lanbide edo enpresa gaikuntza izatea.
- Donostia Sustapenak interesgarritzat jotzea ekimena.

5. Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideak aurkezteko 20 egun baliodun izango dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Proiektuaren ideiak posta elektronikoz bidaliko dira fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora, agiri hauek erantsita:

- a) Eskatzailearen NANaren kopia, pertsona fisikoa bada.
- b) Pertsona juridikoa bada, berriz, eskatzailearen IFKren kopia eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariaren NANA.
- c) Eskabide orria eta zinpeko aitortpena (1. eranskinean jasota).

Formularioak proiektuaren deskribapen memoria bat izango du; agiri horretan, zer ildo tematikotara aurkezten den adieraziko da, eta soluzioaren nortasun berritzailea justifikatuko (1. eranskinean jasota).

Planteatutako soluzioa zehatz-mehatz deskribatu behar da, eta berariaz definitu behar da ideia-deialdiaren barruan inplementatu nahi den soluzioa. Memoria erraz eta argi idatzi behar da, erraz ulertzeko moduan eta alde batera utziz proiektua behar bezala ulertzea galarazten duten teknizismoak; halaber, berariaz aipatu beharko ditu proposamenak balioesteko oinarri hauetako 6. artikuluan zehaztutako irizpideekin zerikusia duten alderdiak.

- d) Formularioarekin edo eskabide orriarekin batera, behar izanez gero, azterlan bat aurkeztu beharko da, proiektua hedatzeko eta ezartzeko beharrekin eta zehaztasunekin eta, bereziki, eskakizun teknikoekin (indarra hartzea, konektagarritasuna, obra zibila, eta abar).

- e) Era berean, inprimakiarekin batera, proiektua azaltzen duen beste dokumentazio osagarri bat ere entregatu ahal izango da: aurkezpenak, txostenak, bideoak, argazkiak, planoak (muntaketa sistema, produktua, eta abar)... Irudituz gero proposamena balioesteko lagungarri izan daitekeela.
- f) Gainera, ideia garatzeko eta abian jartzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabideen adierazpen bat aurkeztu beharko da. Sarituz gero, eta alde zuzeneko baldintza gisa, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak identifikatu beharko dira (propioak edo hirugarrenenak), baita baliabide horiek guztiak benetan prest dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

Parte hartzeko proposamena aurkezten duen pertsona fisikoak edo juridikoak erabat hartzen du bere gain erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasuna, baita aurkeztutako gainerako dokumentazioarena ere.

Agiri guztiak berrikusi ondoren, egiaztatzen bada ez direla zuzenak edo osatu gabe daudela, hamar egun balioduneko epea emango da, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko da proposamena ezetsizat joko dela hala egin ezean.

Enpresa bakoitzak gehienez ere bi proiektu ideia aurkeztu ahal izango ditu, eta bi ideiak ildo tematiko berean nahiz desberdinetan aurkeztu ditzake.

6. Izapidetzea eta ebaztea

Oinarrien arabera aurkeztutako proiektu guztiak 100 puntuko balioespen baten arabera ebaluatuko dira.

Donostia Sustapenak izendatutako batzorde batek balioetsiko ditu aurkeztutako eskabideak. Donostia Sustapeneko langileek osatuko dute batzorde hori, eta, aurkeztutako proiektuaren ezaugarrien arabera, kasuan kasuko eraginpeko udal sailtako teknikariek ere bai. Hauek izango dira balioespen irizpideak:

1. Aurkeztutako proposamenaren argitasuna.	5
2. Premiak zenbateraino asetzen dituzten. Proiektuak ematen die erantzuna COVID-19ak eragindako osasun eta ekonomia krisiaren esparruan sortutako salbuespen egoeraren ondorioei.	20
3. Hiriaren garapenari eginiko onura.	30
3.1. Onura ekonomikoak: gastu publikoa murriztea, lanpostuak sortzea, turismoko eta merkataritzako diru sarrerak areagotzea, saltoki eta egoiliarrentzako aurrezpen ekonomikoa, eta abar.	10
3.2. Onura sozialak: hiriko arazoak konpontzea, herritarren ongizateari laguntzea, aukera berdintasuna, minusbaliotasuna duten pertsonentzako erraztasunak, kolektibo ahulei laguntzea, eta abar.	10

3.3. Ingurumen onurak: energia aurrezte, kutsadura murriztea, klima aldaketa arintzeko ekintzak, eta abar.	10
4. Proiektuaren berrikuntza maila: proiektua berritzailea eta originala da hirirako; berrikuntza maila nabarmena gaineratzen dio hiriari.	10
5. Proiektuaren maila teknologikoa.	25
5.1. Inplementatzeko erraztasuna: proiektua abiarazteko zailtasun maila, batez ere alor teknologikoari erreparatuz.	10
5.2. Egingarriak dira proposatutako berrikuntza teknologikoak, eta haien heldutasun maila nahikoa da berehala inplementatzeko.	10
5.3. Teknologiaren bilakaera: aurrerapen teknologikoen etorkizuneko itxaropena eta proiektuaren etorkizuneko bilakaera.	5
6. Ebaluazio taldeak proiektuari buruz nabarmendutako alderdi azpimarragarriak.	10
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA	100

70 puntutik gorako balioespena lortu duten proiektuak bigarren fasera igaroko dira, eta Donostia Sustapenak bileretara deitu ahal izango ditu, edo, egoki iritziz gero, dokumentazio osagarria eskatu ahal izango die.

Bilera horien ondoren, Hautaketa Batzordeak berak aztertuko ditu hautatutako proiektuek baliatu beharreko teknologiak, eta proposatutako ideien bideragarritasunaren ebaluazioa egingo du (teknikoa, legeriari eta/edo araudiari buruzkoa, kokapena, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak, eta abar), eta bigarren balioespen bat egingo du bideragarritzat jotzen diren eta behar adina giza baliabide eta baliabide material dituzten ideiei buruz. Hala, ildo tematiko bakoitzean puntu gehien eskuratu dituzten proiektuak hautatuko dira, eta baztertu egingo dira bideraezintzat jotakoak.

Batzorde horrek gehienez 45 eguneko epea izango du ideia irabazleen ebazpena emateko, ideiak jasotzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Epaimahaiaren iritziz ideiek ez badute behar adina kalitate, epaimahaiak eman gabe utzi ahal izango du sarrietako edozein.

Hautapen Batzordeak eta Donostiako Sustapena Sak hautatutako ideien gainean hartutako erabakia apelaezina izango da.

Parte hartzaile guztiek beren proiektuaren balorazioari buruzko komunikazio indibiduala jasoko dute.

Horretaz gainera, lankidetzaz hitzarmen bat sinatuko da pertsona fisiko edo juridiko onuradunaren eta Donostiako Sustapena SAREN artean, proiekturako lankidetzaz esparrua zehazte aldera.

Ezinbestekoa izango da garatu beharreko produktu edo zerbitzurako nahikotzat jotzen den erantzukizun zibileko aseguru bat indarrean izatea produktu edo zerbitzu hura aplikatzen den

aldi osoan; beraz, lankidetzak akordio honekin batera aurkeztu beharko da erantzukizun zibileko aseguru horren kopia ere.

Era berean, pertsona fisiko edo juridiko onuradunak izango dira proposatutako produktuaren edo zerbitzuaren eta hura gauzatzearen erantzule bakarrak, eta, beraz, Donostiako Sustapena SA salbuetsita geratuko da ezein erantzukizunetatik, nola eta ez den hark berariaz eta idatziz egindako errekerimendu batetik eratorria.

7. Proiektuak abiarazteko baldintzak

Hautatutako proiektuak martxan jartzeari dagokionez, Donostia Sustapenarekin batera adostu beharko dira deialdian hautatutako enpresek eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren baldintzak, eta harekin zehaztu beharko da, era berean, zer alditan egongo den martxan produktua edo zerbitzua hirian (lankidetzak akordioan definituko da hori).

Hautatutako pertsona fisikoak edo juridikoak bere gain hartuko ditu produktuaren edo zerbitzuaren kostuak, bai eta hura ezartzeak eragindako gastuak ere (garraioa, muntatzea eta desmuntatzea, baimenak, bermea, mantentze lanak eta bestelakoak).

Bestalde, Donostiako Sustapena SAK kasu bakoitzean zehazten den moduan bultzatuko du ezarpena, lankidetzak hitzarmenean jasotzen den moduan. Hori horrela, proiektuak martxan ipintzeko baliabide edo lan osagarriak behar badira (adibidez, obra zibila) instalatzeko, funtzionatzeko edo desinstalatzeko, proiektuaren ardura duen enpresak hartuko ditu bere gain kostuok. Donostiako Sustapena SAK berea du eskubidea erabakitzeko bere gain hartzen dituen ala ez aurkeztutako proposamenean aintzatetsi ez diren kostu horietako batzuk, baldin eta udal interesekoak badira abiarazi beharreko proiektutik harago.

Hautatutako enpresak konpondu beharko du bide publikoan kokatuta egoteagatik produktuari gerta dakioken bandalismo edo hondatze ekintza oro, eta hark egin beharko ditu beharrezko konponketak. Hori horrela, Donostiako Sustapena SAK ez du izango inolako erantzukizunik ondorio horietarako.

Produktua edo zerbitzua hirian instalatuta edukitzeko hitzartutako epea igarotakoan, desinstalatu egin beharko da. Hala ere, epe hori amaitu aurretik, Donostiako Sustapena SAK balioetsiko du komenigarria edo bideragarria ote den produktuari edo zerbitzuari jarraipena ematea, eta, hala iritiz gero, kontratatzeke izapideak egingo ditu.

Kasu horretan, Donostia Sustapenak eta proiektua aurkeztu zuen pertsona fisiko edo juridikoak adostu ahal izango dute instalazio aldia luzatzea, eta Donostiako Sustapena SAK ez du izango inolako betebeharrak ekonomikorik harik eta kontratatzeke prozedura amaitu arte. Prozedura horren onuradun den pertsona fisiko edo juridikoak zuzenean esku hartu ahal izango du instalatutako produktu edo zerbitzuarekin.

a. Sariak

Sari hauek ezarriko dira, ondoren zehazturiko zuzkidura ekonomikoarekin.

- a) IKT soluzioen ildo tematikoa: gehienez bi sari, bakoitza 5.000 euroko zenbatekoarekin.
- b) Jasangarritasun energetikoaren ildo tematikoa: gehienez bi sari, bakoitza 5.000 euroko zenbatekoarekin.
- c) SmartKalea proiektuaren esparruan ezarriko proposamen irekien ildoak: gehienez bi sari, bakoitza 5.000 euroko zenbatekoarekin.

Saria ordaindu ahal izateko, proiektuak abiarazi egin beharko dira lehendabizi. Horretarako, pertsona fisiko edo juridiko onuradunak azken txosten bat aurkeztu beharko du, 8. klausulan jasotako baldintzei jarraikiz. Lankidetzak akordioan ezartzen den aldia amaitu ondoren egingo da ordainketa.

Banku transferentzia bidez egingo da, onuradunak adierazten duen kontuan, eta, aurretik, egiaztatu beharko du egunean dituela ordainketak Udal Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin, bai eta gainerako zerga betebeharrak ere.

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunek honako administrazio agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, lankidetzak akordioa amaitu baino 10 egun natural lehenago.

- a) Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela bermatzen duten egiaztagiririk.
- c) Banku datuen xehetasuna.

8. Proiektuen segimendua, informazioa, monitorizazioa eta publizitatea

Donostiako Sustapena SAK proiektuen hedapenaren jarraipena egingo du, aldian behingo kontrol baten bidez, proiektuen bilakaera eta gauzatze egokia egiaztatzeko. Donostiako Sustapena SAK eskubidea izango du edozein unetan proiektu pilotuak geldiarazteko edo deuseztatzeko, justifikatutako arrazoiengatik, eta, hala, hutsik geratuko da saria eta soluzioaren ezarpena.

Hautatutako enpresek ebaluazio txosten bat egin beharko dute, eta Donostiako Sustapena SAK bidali, probaldia amaitu baino hilabete lehenago. Txosten horretan, proiektuak hirian eta gizartean izan duen eragina aztertuko da, eta proiektuak ekarri dituen hobekuntzak eta atera diren ondorio aipagarriak balioetsiko dira. Txosten hori ezinbesteko baldintza izango da emandako sariari dagokion zuzkidura ekonomikoa jasotzeko.

Enpresak behartuta egongo dira beren ekipoen edo zerbitzuen bidez lor dezaketen informazioa eta datuak lagatzera, inolako kostu ekonomikorik gabe, eta, horrekin, bildu nahi diren datuak monitorizatzeko informazioaren ustiapena sustatuko dute. Enpresak denbora

errealean bidali beharko ditu datu automatikoak hiriko monitorizazio plataforma batera, eta integrazio plataformak eskatutako zehaztapenetara doitu beharko du bidalketa formatua.

Donostiako Sustapena SAK zabalpen ekintzak egingo ditu, hautatutako proiektuak komunikabideetan eta aurkezpen publikoetan jakinarazteko. Gainera, Donostia Sustapenaren web orrian argitaratuko dira hautatutako proiektuak, haien ikusgarritasuna areagotuz eta errepresentzako negozio aukera potentzial berriak irekiz.

Egiten diren jardueretan eta ekimenaren garapenaren parte gisa argitaratzen diren materialetan, berariaz eta argi adieraziko da Donostiako Udalak parte hartzen duela, eta, horretarako, Donostiako Sustapena SAREN irudi korporatiboko elementuak ipiniko dira. Donostia Sustapenak berrikusi eta baliozkotuko ditu dokumentu horiek, eta deialdi honen eta Donostiako Sustapenaren erreferentzia zehatzak jasoko dira.

Bi hizkuntza ofizialetan idatziko da komunikaziorako eta publiziterako edozein elementu edo euskarri, eta lehenetsuna emango zaio euskarari, herri administrazioetan euskara erabiltzeari buruzko 86/1997 Dekretuak, Donostiako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak eta Donostia Sustapenaren Euskara Planaren hizkuntzen erabilerarako irizpideek xedatzen duten bezala. Euskara Zerbitzuak behar den guztietan emango du aholkularitza, hizkuntza ofizialen erabilera bat etor dadin bi hizkuntzok egokiro erabiltzeko irizpideekin.

9. Konfidentzialtasuna

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak eta Donostiako Sustapena SAK errespetatu egin beharko dute ideia gauzatzean eskuratzen duten informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta lankidetzak akordioan izaera hori ematen bazaio, edo, bere tasunengatik, isilpekotzat hartu behar bada.

Bereziki, konfidentzialtzat hartuko dira edozein euskarritako informazioak, ezagutzak, dokumentuak, artxiboak edo zehaztapenak, baldin eta kontratua gauzatzearen ondorioz ematen bazaizkio eta/edo pertsona fisiko edo juridiko adjudikaziodunak zerbitzu horien esparruan sortzen baditu; hori horrela, pertsona fisiko edo juridiko onuradunak ezin izango ditu argitaratu edo zabaldu horiek guztiak, nola eta ez duen Donostiako Sustapena SAREN alde zuzeneko, berariazko eta idatzizko baimenik.

Horrek guztiak ez du eragotziko Donostiako Sustapena SAK aurreko klausulan jasotako informazioa lagatzea eta, halaber, informazio hori hedatzeko eta zabaltzeko lanak egitea. Konfidentzialtasun betebeharrak hori mugarik gabe mantenduko da.

Donostian, 2020ko urriaren 15ean.

Gerentea
Sinatuta: Eukén Sesé Sarasti